

LEZO / Pello Añorga ipuin kontalariaren txanda, gaur arratsaldean

Donibane kaleko Kultur eta Euskara aretoan ariko da Añorga, 'Ipuin kontalariaren arbela' ipuin sortarekin

ERREDAKZIOA

Eskualdean oraindik elurrik ez badu egin, egun elurtsu batean oinarritutako ipuina kontatuko du gaur arratsaldean Pello Añorga ipuin kontalariak (Oiartzun, 1956).

Añorgak, Ipuin kontalariaren arbela ipuin sorta ekarriko du Lezora. Bertan, ipuin kontalari batek, kanpoko hotza baliatuta, hurrei Elefantearen ipuina kontatzen die. Gelako leihoa arbela moduan erabiltzen du ipuineko kontalari horrek, baita patio zuria ere.

Añorgak, berriz, Lezoko Kultura eta Euskara aretoko leihoa erabili beharko du arbela moduan, baita Donibane kalea ere. Izan ere, bertara hurbildu behar dute 4 eta 7 urte bitartean dituzten haurrak ipuinekin gozatzeko. Hitzordua arratsaldeko seietatik ordu laurden pasatuta jarri dute.

Asteazkenero egingo dituzte ipuin kontaketak. Datorren astean Koruko Zurutuzaren txanda izango da. Atearen bestaldean beste mundu bat ipuina kontatuko du. Liburutegiko lanak bukatuz gero, han izango da.